

# GAUZAK GARBI, DIO B'TSELEM MUGIMENDUAK: ISRAELGO ESTATUA APARTHEID ERREGIMENA DA

B'Tselem erakundeak, giza eskubideen aldeko elkarte israeldarrik sendoenak, urtarrilaren 12an ozenki aldarrikatu du Jordan ibaiaren eta Mediterraneoaren arteko eremu osoan indarrean dagoen erregimen politikoa argi eta garbi dela apartheid-a: sistema supremazista bat betikotu nahi duena herritar juduen nagusitasuna eremu berean bizi diren palestinarren gainetik. Aspalditik ekintzetan erakutsia, 2018tik Israelek bere Konstituzioan dauka txertaturik.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

**B**'Tselem 1989ko otsailean sortu zuen Israelgo abokatu, intelektual eta akademiko talde handi batek lehen Intifada betean eta taldeari helburutzat jarri zioten beren estatuak lurralde okupatueta egiten dituen giza eskubideen urraketak dokumentatzea, izena hartuta Bibliako *Genesisia* ataletik: “Jainkoak bere antzeko (*“b'tselem Elohim”*, hebraieraz) egin zuen gizakia”. Gizaki guztiak, alegia.

Israelgoa apartheid-estatu bat dela esaten ez dira lehenak izan B'Tselemgoak, baina honen deklarazioa benetakoa mugarrira gerta daiteke Ekialde Hurbileko gatazkaz munduak daukan pertzepzioan, 31 urteko lan eta erreflexioen ostean ozenki aldarrikatu baitu Israelek bere kontrolpeko eremu osoa kudeatzen duela apartheid izena dago-kion eredu bakar baten arabera: “Irudika ditzakegu hainbat bide justiziazko etorkizun batera iristeko Jordan ibaitik Mediterraneora arteko eskualde honetan, baina hasteko denok esan behar diogu ezetz apartheid-ari”. B'Tselemen agiriak zehatz-mehatz deskribatzen ditu apartheid hitza erabili beharra argudiatzeko arrazoiak. Hona xehetasunon zenbait tanta.

14 milioi jende bizi dira Jordan ibaitik Mediterraneora artean, erdiak juduak eta beste erdiak palestinarrek. Diskurtso publiko, politiko, juridiko eta mediatikoetan aditzera ematen da bi erregimen ezberdinetan bizi direla, 1949ko

armistizioan markatutako Lerro Berdearen alde banatan. Alde batean, Israel estatu burujabeen 9 milioi pertsona, denak herritartasun israeldarren jabe, nahiz eta ez denak izan judu (ia 2 milioi palestinarrek dira, *arabiar israeldarrek* ere deituak). Lerro Berdearen beste aldean, 1967an Israelek okupatutako lurraldean etorkizuneko negoziaketek zehaztu beharko omen duen estatutu baten zain diraute 5 milioi palestinarrek, 51 urtez luzatu den okupazio militar ‘provisionalean’.

Baina bost hamarkada luzeotan ehunka mila kolono judu kokatu dira Zisjordaniako kolonia egonkorretan eta bizi dira *de facto* Lerro Berdearen mendebaldean bailiran, Israelen bezala. Gainera, Ekialdeko Jerusalem ofizialki bereganatu du Israelek eta Zisjordania praktikan bere egin du. Beraz, bi erregimen ezberdin izatearen uste horrek nahasten du benetako egoera zuzen interpretatzea: eskualde osoa bizi dela erregimen berean.

B'Tselemek 1989an helburutzat hartu zuen Zisjordanian –Eki-Jerusalem barne– eta Gazan Israelek egindako eskubide urraketak salatzea, uko eginez muturra sartzeari Israel estatuko barne egoeran. Baina geroztik Israelek praktikan ezarritako *de facto*-zko aldaketek gain 2018an funtsezko aldaketa egin zuen bere Konstituzioan, legez deklaratu Israel “jende juduen nazio-estatu”. Eta errematatzeke, parlamentuak

2020an Zisjordaniaren zati osoak bereganatu ditu formalki.

“Horrek guztiak esan nahi du lurralde okupatueta gertatzen dena ezin dela ulertu Israelek kontrolatzen duen eremuaren osotasunetik at. Jada ez dira egokiak azken urteotan egoera deskribatzeko aipatu ditugun kontzeptuak, “okupazio luzatua” bezalakoak. Giza eskubideen bortxaketek kontra eraginkortasunez borrokatzeke, eskualde osoan agintzen duen erregimena dago definitu beharra. Eta errealtatea da Mediterraneoetik Jordanera bitarteko eskualde osoan Israelgo erregimenak erabiltzen dituen lege, praktika eta estatu biolentzia antolatuta daudela talde batek –juduek– bestearen gainean –palestinarrak– supremazia eraiki dezan”.

## XXI. MENDEKO APARTHEID-A

Herritar juduak eskualde osoan bizi dira eremu bakarra bailitzan, haien zat ez da Lerro Berderik, bazter orotan dauzkate eskubide guztiak. Aldiz, eremu-zatiketa bizi duten bakarrak dira palestinarrek, hauentzako eskualdea mosaiko bat da. Palestinar batzuk, 1949ko mugen barruan Lerro Berdearen mendebaldera bizi direnak, Israelgo herritar dira eta eskubide asko dituzte –nahiz eta ez juduen guztiak–. Zisjordania okupatua, 2020ko lege bereganatua bezala gainerako guztia, Israelek berea balu erabiltzen du eta hemen bizi diren 2,6 milioi palestinarrek dozenaka eremu txiki eta itxitan pilatzen



### LEGE BIKOITZA

EZKERREAN, PISGAT ZEEV  
KOLONIA JUDUA, BERE ERREPIDE  
PRIBATUAREKIN; ESKUINEAN, SHUAFAT  
KANPALEKU PALESTINARRA, IRTETEA  
ERAGOZTEKO HARRISZ INGURATUTA.  
ARGAZKIA: DEBBIE HILL.

dira, juduen aginte militar zorrotzaren mende eta eskubide politikorik gabe. Bai Palestinako Agintaritzak kontrolatzen duen Zisjordaniaren %40a eta bai Israeliek bere militarrek bezala kolonoak atera zituen Gaza txikia, bere 2 milioi herritar palestinarrekin, horiek ere zorrotz kontrolatzen ditu Israeliek.

Aipatu eremu ezberdin guztietako bakoitzean Israeliek eskubide multzo ezberdina aitortzen die palestinarrei, beti juduei aitortutakoa baino mugatua. Eta lau metodo nagusi darabiltza apartheid israeldarrak juduen supremazia sustatzeko. Horietatik bi eskualde osoan ezarrita dauzka: etorkin ez-juduei Israelera etortzea eragozte eta palestinarrei lurra kentzea soilik juduentzako diren kolonia berriak eraikitzeko. Beste bi metodo gehiago erabiltzen ditu soi-

lik lurralde okupatuetan: palestinarren mugimenduak eragozteko neurriak eta haien eskubide politikoak ukatzea.

Hego Afrikako apartheid ezagunarekin alderatu ote daitekeen Israelgoa? Baietz diote B'Tselemdik. Hego Afrikan herritarren arteko ezberdintasuna larrazalaren koloreak erabakitzen zuen; Israelen, nazionalitateak eta etnizitateak. Erakundearen zuzendari nagusi Hagai El-Adek esan duen moduan, *apartheid 2.0* da Israelgoa, Hego Afrikakoa bezain supremazista baina metodo eta teknikan sofistikatuagoa. "2018an Konstituzioan sartu den aldaketak herri juduaren autodeterminazioa ezartzen du gainerako guztiak kanpo utzita. Konstituzioak dio Israelen (eta munduko beste edonon) juduen eta ez-juduen artean bereiztea oinarritzkoa eta legezkoa dela. Horreta-

tik abiatuta, instituzionalizatu egin du juduen aldeko diskriminazioa erresistentzia eskubidean, lurren jabetzaren, herritartasunean, hizkuntzan eta kulturaren. Orain juduen supremazia Konstituzioan dago ezarrita".

Horrela ikusita, apartheid-aren beste balentria lotsagabe bat gehiago da COVID-19aren txertoekin Israeliek egin duena, bere herritarren zati hautatua munduaren txertatze eredu bihurtuz eta herritar gaitzetsiak -palestinarrak-, pandemiaren mende utziz erruki gabe.

Hego Afrikako apartheid-arekin egin zen bezala, inork ez luke negoziarik egin behar horrelako herrialde batekin. Are gutxiago, Beasaingo CAF tren ekoizlearen kasuan bezala, herritarren segregazioa areagotuko duen azpiegitura bat eraikitzeko baldin bada. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com

